



HERNANI Azaroak 27



[albisteak](#)//DUNAK ETA UDALA SAGARDOETXEA

Eraikina mantendu eta herriko toki gehiago tematizatzea, proposamena

Sagardoetxearen kokalekuari buruzko prozesua burututa, Dunak taldeak ondorioztatu du egokiena izan daitekeela eraikina bere tokian mantendu, eta herriko puntu gehiagotan jartzea sagardoaren kulturarekin lotutako errepresentazio eta bisita guneak.

ASTIGARRAGA

2018/09/22 00:00 Larunbata

Prozesua burutu dute azkeneko hilabeteotan, Dunak taldearen eskutik, Sagardoetxearen kokapen egokiena bilatzeko asmoz. Eta prozesuaren nondik norakoen zein ondorioen berri eman zuten ostegunean, Dunak taldeko Koldo Telleriak eta Ana Almandozek.

Horretarako, apiriletik irailera bitarte, bilerak egin dituzte batetik, herriko **sagardogile**, eragile, politikari eta teknikariek; eta bestetik, azterketa teknikoa ere egin dute.

Prozesuaren azkeneko ondorioa izan da, egokiena izan daitekeela Sagardoetxearen eraikina bera ez tokialdatzea, baina herriko puntu gehiagotan jartzea sagardoaren kulturarekin lotutako errepresentazio eta bisita guneak. Sagardoetxean soilik pentsatu beharrean, sagardo herria kontzeptua lantzea, alegia.

Herriko bost gune, aztertuta

Aukera hori, hala ere, ez zegoen hasiera batean planteatutakoen artean. Lau kokaleku berri proposatuz abiatu zuten prozesua: Portutxo ingurua, hilerri ingurua, Errekalde ingurua eta Sagardi gaina. Aurreneko bileretan jasotakoarekin, ordea, Errekaldeko aukera baztertu zuten, eta beste bi gehitu ziren: Sagardoetxearen kokalekua bera (eraikina berrerabilita edo lorategian eraikin berri bat eginda); edota Ibai parkea. Beraz, bost izan dira azkenean, landu diren tokiak.

Eta lanketa hori eginda, oraingo kokalekua ikusi dute ondoen; baina beste tokiek eskaintzen dituzten aukerak ere aprobeztatzea proposatu dute: «kokapen bakoitzak ezaugarri zehatzak ditu, eta aukera ezberdinak eskaintzen ditu. Sagardi gaina aberatsa da ingurugiro aldetik, eta egungo sagardiaren gaineko basoan, kupelak egiteko zuhaitzak daude; ibilbide bat egin liteke bertan. Hilerri ingurutik, berriz, Astigarragako sagardoaren paisaia osoa ikusi daiteke; toki ederra behatoki bat jartzeko. Portutxon, bidegorriaren eta ibaiaren gertutasuna, errepideetatik duen ikusgarritasuna eta sagardotegien gertutasuna aprobeztatu daitezke. Eta Ibai parkean jarri daiteke, adibidez, sagardoaren ibai bidezko garraioa islatzen duen informazioa, eta aztertu daiteke lotura bat Donostiarekin Urumean zehar», azaldu dute.

Hori horrela, nabarmendu dute, museo eraikin ikaragarri bat egitea baino, aberatsagoa dela «esperientziak» eskaintzea; dena eraikinean kontzentratu eta «sagardoaren kultura monopolizatu eta zentralizatuko duen elementua izan beharrean», toki gehiagotara zabaltzea sagardoaren kultura: «Sagardoetxeak eduki ditzake sagastia, basoa, enbarkadero bat ibaian, behatokia hilerri inguruan...», diote.

Beharrak aztertzea eta espazioak zehaztea, hurrengo pausoa

Orain, txostenaren idazketa bukatzen dutenean, herritarrei aurkeztu eta informazioa helaraziko diete. Eta hurrengo fase batean, proposamenak aurrera eginez gero, aztertuko dituzte dauden beharrak, eta zehaztuko dituzte herrian zehar sortuko diren espazio berri horiek.

 Atsegin dut 0

 Whatsapp  Emaila  Inprimitu

IRUZKINAK



HERNANI Azaroak 27

ESKELAK

Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

Puri-Purian

Auzolana (1)

Onddoak eta taloak ... (1)

Txakurren gaia lantzeko, ... (1)

Zerga eta tasen ... (1)

gurean.eus



Bi tantoren aldeetatik galdu zuten finala Arrizabalagak eta Lizarralde

BARREN.EUS [KIROLA](#)



Berrikuntza gaitasuna zahartze osasuntsuaren zerbitzura jarri

Urumeako gida



Komertzio bat bilatu

Bilatu



Orekan dietetika

Produktu naturalak eta aholkularitza zerbitzua

Iragarki merkeak

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

[Tweets por @KronikaNet](#)

Begiratu

Idatzi domeinua



Zure domeinua

Zure domeinu-izena libre dagoen jakin nahi duzu?
Begiratu hemen!

Gaur



Bihar



Etzi



16°
8°

19°
10°

17°
9°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak

Atalen eguna 2018

Karabel eguna 2018

Euskal Jaiak

Lizeagako festak


Mugikortasun astea 2018

Zikuñagako Festak


Azken bideoak



Elektromugikortasun Zentroa martxan, 2021erako



'FutureNi.eus': zahartzaroari begira herritarrek ...




Musika taldeek izena eman ...



«Hernaniarrak harritu egiten dira; ...



Agur San Joanei 2018



San Joanak hasita, denak ...

ARGITARATZAILEAK



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefona: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus



LAGUNTAILEAK



Legezko oharra